

## GIZONA ETA ERLEJUA

Gizona urtietan  
 aurrera zanean,  
 eta ezertarako  
 gauza etzanean;  
 etzekarrelarikan  
 gaitzik edo miñik,  
 echean gelditu zan  
 ibilli eziñik;  
 bañan erleju bat an  
 zinzillik egonik,  
 ark etzion egiten  
 aitonari onik;  
 ikusirik ordubak  
 lasterka pasatzen,  
 nabaitutzen baitzuben  
 zijoala zartzen,  
 eta ura zan beti  
 senti zuben miña,  
 denboraren juanera  
 gelditu eziña:  
 ala bein erlejua  
 atzeratu zezan,  
 edo lasterkagotzen

ikusi etzezan,  
 nolabait alcharikan  
 zeguen sillatikan,  
 eta bere gañera  
 igo ta andikan,  
 zala bere naieran  
 zirikaka ari,  
 silla ta guzi goitik  
 beera zan erori,  
 eta kordea juanta  
 gelditurik bera,  
 denborak zuzen zuben  
 segitu aurrera.

. . . . .  
 Erlejua gelditzen  
 biziro errez da,  
 bañan denborarikan  
 gelditutzen ez da;  
 au juaten da aurrera  
 ta beti aurrera,  
 segitu eziñik gu  
 gelditutzen gera.

RAMÓN ARTOLA.